

iraunkortzat hartzea enpresariet; ulertu beharrekoa da gure prezioak eta soldatak beren bilakaeran herrialde egonkorenetatik urruntzen baldin badira, truke tasa mugiezinen testuinguruan egotean, lehiakortasuna neurri benetan arriskutsuan galduko dela, eta aurrerantzean horri ezingo zaiola, inoiz ere, aurre egin iraganean hainbeste erabilitako debaluazio lehiakorrek baliatuz.

Nabarmena da, alternatiba posible guztien artean apustu egin nahi dugun estrategia eta aukera politikoak, Maastricht-eko baldintza nominalak betetzea eskatzeaz gain, aipatu ditudan baldintza hauek, eta beste batzuk, betetzeko gaitasuna izan dezagun ere eskatzen duela. Bide honetan baino ez dugu lortuko gure langabezia tasa murriztea eta aukera itxaropentsu bat eskaintzea hainbeste gazte trebatu, hezi eta gaituri, euren energia eta ezagutzak norbere buruaren alde eta gizartearen alde erabiltzeko modurik aurkitzen ez duten hainbeste gazteri. ¶

[Erredakzioan euskaratua]



Jenaro Garate

Euroa: egiaren Europaruntz

Orain eta hemen aztertuko dugun ikuspuntutik begiratu, euroa hau da: hamaika naziok gogoz onartzen eta janzten duten uztarri ekonomikoa. Orain artekoak era askotako aurretratuak izan dira. Euroa onartzea, berriz, notariara joan eta tratua herri guztien aurrean izenpetzea da. Txanpon ikusgarri bihurtuko den tratua, eten ezina, egunerok gure eskuetan izango duguna. Gogozko lokarria da, baina hari luze eta sendoz elkar batzen gaituena. Galdera hau da: «Gu, euskaldunok, tratu honen alde edo kontra?». «Europaruntz nahi dugu ala Beheruntz?».

Euskadiko Ipar eta Hegoaldea

Esaera ezaguna da —batez ere Frantzian— Europa Pirinioetan bukatzen dela. Badira datuak, gure begien aurrean, esaldi horren esanahiren bat baiesten dutenak. Bi arlo desberdinetara joko dugu baiesperen hori aztertu nahian: Zientzietara eta herri, kale eta enparantzetara.

Zientzietara, lehenbizi. Duela urte batzuk nire gaztetako matematikak gogoratu eta sakontzen niharduela, harrituta begietsi nuen zenbat matematiko handi izan diren Frantzian. Hona hemen dozena bat ezagun: Descartes, Fermat, L'Hopital, D'Alembert, Lagrange, Monge, Laplace, Fourier, Cauchy, Jordan, Poincare, Lebesgue. Espainiako bat ezin aipatu, frantses horietatik baten antzeko denik. Ondorioa: izan dela zeozer Ipar eta Hego Pirinioa banandu izan duena.

Beste adibide bat. Goazen Pirinio iparreko euskal herrietara, eta gero hegokoetara. Hango kale eta enparantzen garbitasuna nabaria da, hegoaldekoekin konparatuz. Alde handia, begi bistan. Beraz, hor ere ageri da zeozer Ipar eta Hego Pirinioa banantzen duena.

Nire euroari buruzko iritzietarako beharrezkoa da Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko bereizketa hau, euroaren eragina desberdina izan litekeelako Espainian —Espainiara lotuta dagoen Euskadi zatia barru— eta Frantzian —bere Ipar Euskadirekin—. Eta nik, lehenbizi, Espainiara uztartuta dagoen Euskadiko zati honi begira jardungo dut. Amaieran osatuko dugu jokaera mugatu hau.

Egia, gardentasuna

Konparaketak egiterakoan, ez da zaila min ematea. Horregatik, hasieratik nahi dut garbi laga: jokabide eta egintza batzuei buruzko iritzia eta —baliteke— epai zorrotzak agertuko direla hemen. Baina ez pertsonen buruzkoak. Gizakia pertsonak lez epaitzea gizakiaren ahalmenak gainditzen duen zerbait da.

Batez beste, Ipar Europa aldeko politikoen eta funtzionarioen joerak askoz estuago lotuta daude egiaekin. Eta hori nabari geratzen da norbaiti zerbait oker egina aurkitzen zaionean. Berehala dimitituko du, ezinezko zaiolako

bere herriaren aurrean gezurretan ari eta bere aulkiari eustea. Bestalde, funtzionarioek ezin dute gorde edo isilpean eduki euren eginak edo jakinak, Behe aldean ohi dugunez. Gardentasunaren beharra herriaren aurrean askoz eraginkorragoa da. Ekonomiaren arloan, haiek ematen dituzten estatistikak eta datuak askoz fidagarriagoak izaten dira, gehienetan.

Horrek ez du esan nahi Iparraldeko agintari eta funtzionarioak Behekoak baino zintzoagoak direla. Herriak praktikatzen eta erakusten dio etika agintedunari. Agintezaleek, horretan, ez dute egiten burua makurtu besterik herriaren esanera, herria hobeto menperatzeko izango bada ere. Horrek esan nahi du hango herritarrek arazo publikoetako egiaren eta gardentasunaren praktikan askoz arurrerago dabiltzala gu baino.

Lantokitik begiraturaz ere, egiari buruzko alde handia ikusten da herrien artean. Europa Mendebaldeko enpresek esango dizutena, esan bezala da. Adibidez, zentesimako prezisioa, zentesimakoa da, eta ez dezimakoa. Salbuespenak beti izaten dira, baina gehienetan —askoz—, esana egia da.

«Gaur bidaliko dugu» esango bada, bertan egunean aterako da. Ez ditut izan tratu gutxi batzuk baino Afrikako herriekin. Iberoamerikakoekin asko. Hango herri adiskideetan, «gaur» ez da bukatzen iluntzean; eta «datorren astean» ez duzu jakingo, sarritan, zein hilabetekoa izango den.

Hauek denak zein aukera komeni zaigun argitzen dute: egiazaleekin bildu ala ez. Geratzerik ez dago. Goruntz ala beheruntz. «Europa» kontzeptu ekonomikoaren mugak Pirinioetan gorago eraiki ala Gibraltarrera eramanez. Euro zehatza eta gardena, ala nolabaiteko *afro* ilun bat.

Ekonomia zientziaren muina: gizakia eta egia

Gatozen zientzia den ekonomiara. Lehenbizi ekonomia orokorra. Ekonomiagintzan, definizioan bertan, bi arazo daude: helburua eta bitartekoak. Gaur egun ekonomiaren ardatz (helburu ere bai?; ba ote dago helbururik?) merkatua aipatzen da. Merkatua baldin bada helburua, edo merkatua aipatuz beste inolako helbururik baiesten ez

bada, merkatu hori fetitxe hutsa da. Ekonomiaren helburua —behin eta berriz esan beharrekoa— gizakia delako. Barru-barrutik elkarzale den gizakia.

Baina ekonomia zientzia ere bada. Eta zientziaren helburua egia da, unean uneko zientziarena. Eta hemen dator merkatua ekonomian. Merkatua zera da: gizaki bakoitzak egin edo eskainiari buruz beste gizakiek egiten duten balorazio erreala ren argibidea. Elkartasunak eraginda asmatzen ditugun banatze guztiek ez dute ezkutatu behar bakoitzaren eginek lortzen duten balorazioa bere herikideengandik. Hori merkatuak ematen du. Merkatua ekonomiako egia ren mezulari da. Eta disparate hutsa da merkatuak erakusten dituenak ezkututzen eta gaitzesten jardutea. Eta joera oker hori ere askoz nabariago da Behe aldean, Goi aldean baino. Euro a ren egiaruntz arazoizko bultzakada.

Ekonomiaren praktika orokorra

Ekonomian ematen diren jokaera orokorrak, adibide batez aztertuko ditugu. Ezaguna da esaera hau: «Arrain bat eman eta egun bateko gosea kendu; arrantzan erakutsi eta bizi guztiko gosea kendu». Adibide erakusle hau erabiliz zera esango dut: Behe aldeko herri arrantzaleetan banatzaileak nabarmentzen direla, eta Goikoetan egileak.

Gu banatzaileen inflazio nabariak jota gaude. Politiko, sindikalista, predikadore oro jakintsu da banatzen; tekniko, bihotz handi. Hor dator eguneko arraina merkatura. Zeinek baino zeinek ozenago esango dizute zelan banatu arrain hori. Gaixoez, ezinduek, haurrek, zaharrek, langabeek zer behar duten eta eman behar zaien. Baina zera da jakin beharrekoa, denontzat: baldin herrikoen estimazioaren arabera amuarrain bakoitzak bi aingira beste balio badiu, bi amuarrainekin datorrenak lau bider gehiago dakarrela merkatura aingira batekin datorrenak baino. Baina, zoritxarrez, ez da azalduko predikadore banatzailezik gazte eta helduei honelako zerbait esango diena: «Erre arrantzan. Egin amugintzan. Jardun kainaberak ekartzen. Aztertu arrain karnataren arloa. Aukeratu erreka bazter egokiak arrantzarako. Saiatu eskolan, edo amugintzan ikasten, edo arrainen ohiturak, joerak eta orduak jasotzen. Gai denak

taldeak eratzeko, bai amugintzan, bai arrantzan, eta abar, ekin diezaiola bere enpresa lanari, lanpostugintzari, bere ahalmenik galdu gabe». Eta abar.

Horrelakorik inor gutxik predikatzen du gure Behe aldean. Eta horrela, banatzearen predikadore gehienek eskalegintzan dihardute, alfergintzan ez direnean ari. Zein gutxi diren erantzulegintzan, egilegintzan, lanpostugintzan saiatzen direnen alde egiten, hitzez eta egitez, gizakiak benetan jaso eta osatuz. Gizakia da ekonomiaren helburua, bere muinean elkarzale dena. Elkartasuna zerbait sakona eta ederra da gizakiarengan. Baina elkartasuna ezin daiteke gezurrean ezarri. Eta sarri aipatzen dira gezurrezko elkartasunak, egia askoren ezkutuan, edo gezur askoren gainean ezamiak. Elkartasunaren kontrakoak. Arazo publikoetan gezurra korrupzioa da. Korrupzioa gezurra da. Horregatik euroak gure alde egingo du, bizitza sozialean giro egiazaleagora eta elkartuagora garamatzalako.

Enpresa

Gatozen enpresa soilera, eskaintzan dagien organo edo zelula ekonomikora. Zer da eskaintza? Hiru alderditan dago eskaintzak:

- Ondasun eta zerbitzuak asma-sortzen.
- Ondasun eta zerbitzuen produkzioaren eraketak sortzen eta burutzen.
- Ondasun eta zerbitzuen guraria ezagut-sorrarazten.

Hiruren barrenean dago sorketa. Non predikatzen da gure Behe aldean ondasun eta zerbitzu berriak asmatzen saiatu behar dugula, asmatuen egitea berrasmatzen, asmatuak ezagutarazten eta gura sorrazten? Gure politikorik gehienak teklari dira. Interesen tekla jo, inbertsioarena, zergena, zorrena jo eta jo, eta dena konpondu. Euroaren eremuan ez dute gehiago horrela tekla jotzerik izango. Saiatzearen garaian sartzen gara. Egiazko jardunean, egia-eren Europan.

Europako Ipar, Erdi eta Hego aldeak

Suediarra banintz, ni ere Beheko nazioen zintzotasunaren beldur izango nintzateke, gezur eta joko zikinaren

arriskua jasan beharraren arduran. Baina hegoaldeko euskalduna izanik, baietz betea ematen diot euroari. Ez euroaren eragin onuragarriak bultzata bakarrik, ez. Batez ere, euroaren atzean, alboan, goian, oinarrian diharduten jokaerak gure jokaerak garbiaraziko dituzten itxaropenean, urteen joan-etorrian. Eta gure kale eta enparantzak ere bai.

Euskal ipartarrei buruz, zera: gero eta antzeokoago, elkartuago izan gaitezen egingo duela euroak, Behekoek irabaziz eta Iparrekoek ez galduz. Hori uste dut. Gu *afro*-runtz geratze-joatea, kolpe negargarria izango litzateke Euskadi osoaren elkartasunarentzat.

Euroaren eragin behin-behinekoak

Euroa dela-eta, bidegurutze bakoitzean kantuak eta negarrak entzungo dira. Bizitzearen arazoak. Baina goruntz doan bidean gabiltzanez, alaitzeko arrazoi sakonak ditugu. Euroak egia eta argia dakarkigu. Euroaren egiak askatu, indartu eta batu egingo gaitu. Euroaren hotsa musika da. Poztu gaitezen! ♪



Iñazio Irizar

Euroa eta enpresa industrialak

Real Casa de Moneda. Oñate. Octubre. 1875. C VII.

Horrela dio, alde bakoitzean, Bigarren Karlistadan On Karlos VII erregegaiaren Errege Moneta Etxeak, 1874-75 urteetan, Oñatin izan zuen txanpon-etxean egindako zilarrezko piezak.

Jakina denez, Euskadin izan dugun Moneta Etxe bakanak ez zuen asko iraun. Eta ia beti gertatu den bezala, ez borondate faltagatik, indarra eraginez baizik. Armada liberalak azkar asko desegin baitzuen makineria guztia, 1876ko martxoaren 3an Oñati menpean hartu zuenean.